

*Salvat Léon*  
*Hazparne, Lapurdi (1871)*

Aurkibidea

## Biografia

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. 42 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Zapataria zen. Ama Hazparnen jaioa zen, aita aldiz Bardozen. Euskalkia: mendebaldeko behe-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.184

## Zintak

### HAZ-004

- **Proiektua:** Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Data:** 1913-07-25
- **Iraupena:** 2 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Emalea:** OAW

# Pasarteak

## 1. Hazparneko krimena

- Erref:** HAZ-004/001
- Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

### Laburpena:

<p>Leon Gilento zaldi-tratularia erailtzen saiatu zireneko istorioa kontatzen du.</p>

### Transkripzioa

Huna Azparnen gerthatu den krima. Kabiiko kartierrian, astearte goizian, bedeatzi oonak irian. Leon Gilento makiñuna asasinatua izan da, bee ganberan, Bastidako merkaturat juaiteko prestatzen ai zelaik. Ez du haatik hil, bainan du azkarki kolpatu, eta diotenaz irrisku haundian. Kolpatzailia Labiiko kartierekua da, Bruiteneko Erlandeen semia, hoita zazpi urthetako muthiko gazte bat Ameriketaik egun hotan arribatua eta oono bee etxen sartzekua, diila hamar bat urthe Ameriketaat juana. Leonekin konpeiniatua zen Baionan juan den ortzeunian beste zonbeit makinunekin, Leon Gilento delakua jaun misionest Belzunz aphez zenaren anea da. Eta berroita hamoost urthe ditu: bakharrik bizi zen aspaldian Gilentoonian pensonia kanpuan hartzen zin. Astearte goizian bedeatzi oonak irian atheatu da auzoat zeiten hartzeat; batzuek erran dute Piarres Ximuneren etxeat, bertze batzuek aotzian izan zela baso'at arnoon edaten eta taakuaan eosten, erranez naski Bastidako merkaturat juan zela...

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2026-03-26*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com